PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratuaren gaia hau izango da: Zarauzko Udalaren jabetzako lokalak, eraikinak eta bide publikoko elementuak garbitzeko zerbitzua ematea (Baldintza Teknikoen Agiriko I eranskinean adierazitakoak) eta edukiontzi higieniko eta bakteriostatikoak, aire-gozagarriak eta alfonbra ez-labaingarriak hornitu eta mantentzea Zarauzko Udalaren mendeko eraikinetan.

2.- GARBIKETAREN EGUNGO EGOERA

Lizitatzaileek aukera izango dute plegu honetan sartutako eraikin guztiak edo horien zatiak ikuskatzeko, gero euren ebaluazioa egiteko behar badute. Horretarako bisitaldi bakarra antolatuko da eta kontratazio profilean zehaztuko da.

Enpresa adjudikaziodunak onartu egin beharko ditu eraikinek garbiketaren aldetik gaur egun duten egoera, eta behartuta dago horiek mantentzera eta behar diren aldaketak egitera, plegu honetan, eranskinetan eta bere eskaintzan jarritako epeetan eta baldintzetan.

3.- EGIN BEHARREKO ZERBITZUAK

Enpresa adjudikaziodunak zerbitzu hauek egin beharko ditu:

- Garbitasun mailarik onena lortzeko egin beharreko lan guztiak egin. Horretarako, langileria egokia edukiko du (kopuruan eta gaitasun profesionalean), bai eta eraginkortasun frogatua duten erremintak, makinak, garbiketa-tresnak eta –produktuak ere.
- Garbiketako tresnak eta produktuak hornitu.
- Udal eraikinetako edukiontzi higienikoak eta bakteriostatikoak, aire-gozagarriak eta alfonbra ez-labaingarriak hornitu eta mantendu.
- Hondakin mota bakoitza jaso eta bide publikoan hurbilen dauden guneetan bota, hondakin mota eta gune bakoitzerako jarritako ordutegietan.
- II. eranskinean jasota daude asteko zerbitzu-orduak, kristalen garbiketa, urteko zerbitzu-orduak eta asteko lanegunak.
- III. eranskinean jasota daude eraikin bakoitzaren fitxak, eta zehaztuta datoz eraikin bakoitzerako zerbitzu espezifikoak, zerbitzu bakoitzerako orduak, garbiketa-maiztasunak, azalera osoak eta berezitasunak.
- Honako azalera hauek garbitu: zoruak, paretak, kristalak, altzariak, lanparak, alfonbrak, ateak, bitrinak, komunak eta eraikietan dauden beste edozein elementu; hala nola, paperontziak, arbelak, sua itzaltzeko ekipoak, apainketako objektuak… —elementu mekanikoen funtzionamenduari eragiten diona izan ezik—.
- Plegu hauetan eta II. eranskinean adierazitako baldintzak gutxienekoak eta derrigorrez bete beharrekoak dira.
- II. eta III. eranskinetan finkatu dira eraikin bakoitzerako lanorduak, zeregin nagusiak eta maiztasunak. Hala ere, kontratuaren xede diren eraikinetan edo horien zatietan Udalak egindako jarduerek sortutako zirkunstantzia bereziak direla-eta, aldizka eskatu daitezke beharrezkotzat jotzen diren beste zerbitzu batzuk.

4.- ZERBITZUEN ORDUTEGIA

Garbiketa zerbitzuaren hasierako eta bukaerako ordutegia bat etorriko da beti eraikin desberdinen funtzionamenduarekin. Hala, zerbitzuaren ordutegia zentroko jardueretara egokituko denez, eraikinen funtzionamendua ez da inoiz etengo kontratu honen xedearen ondorioz.

III. eranskineko fitxetan adierazten da eraikin guztien ordutegi orokorra, bai eta eraikin jakin batzuetan egiten diren zerbitzu eta jarduerak direla-eta eskatzen den ordutegi berezia ere.

Fitxetan era espezifikoan jasota daude ordutegiak. Enpresa adjudikaziodunak beste ordutegi eta lanegun jakin batzuetan eman beharko du zerbitzua eraikin horietan, alegia, garbiketako ordutegi orokorretik kanpo.

Hezkuntzako eraikinetako zerbitzu-ordutegia:
Eskolako egutegiaren arabera antolatuko da zerbitzuaren ordutegia. Oporraldietan ez da zerbitzurik emango. Astelehenetik ostiralera emango da zerbitzua normalean (III. eranskinean adierazitako kasuetan izan ezik), finkatutako ordutegietan eta Udal irizpidearen arabera. Hala ere, Udalak ordutegiak alda ditzake, egokia iruditzen bazaio. Garbiketa orokorrak oporraldietan egingo dira.

Garbiketa orokorrak egiteko, hezkuntza zentro horietako lan-egutegiak emango zaizkio enpresa adjudikaziodunari, bai eta Udaleko eta Kiroldegiko egutegiak ere.

5.- MAIZTASUNAK

Kontuan hartuta adierazitako eraikinetako lokalek ezaugarri bereziak dituztela, plegu hauen III. eranskinean eraikin bakoitzaren fitxak aurkezten dira, horien azalera, maiztasun, lan, berezitasun eta guzti. Horiek kontuan hartu beharko dira eraikin bakoitzeko instalazioak garbi-garbi edukitzeko.

Era berean, eraikin bakoitzerako garbiketa-zerbitzuaren gutxi gorabeherako ordutegia zehazten da fitxa horietan. Enpresa adjudikaziodunak ordutegi horien aldaketa proposatu dezake, baldin eta eraikin horien funtzionamendu-ordutegia oztopatzen ez badute.

6.- ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

6.1 AZALERA HORIZONTALAK

Orokorrean, garbiketa egitean, erratz bustia pasatuko da lehenik, eta zorua kubo bikoitzaren sistema erabilita garbituko da, hau da, ura aldatuz, beharraren eta zonaren arabera.

Sistema hori erabilita hautsak berriro zirkulatzea saihesten da, eta germenak transmititzeko bide nagusietako bat mozten da.

Orokorrean, hautsari erreparatu behar zaio bereziki, germenak eroateko bideetako bat baita.

Oso garrantzitsua da kubo bikoitzaren sistema behar bezala erabiltzea, zorua beti detergente eta ur garbiz garbitzeko. Hala ez dago arriskurik detergente desinfektatzailearen funtzioa desaktibatzeko.

Erabat debekatuta dago erratz lehorra edo xurgagailua pasatzea, ehunezko lurretan (moketak eta alfonbrak) izan ezik; garrantzitsua baita garbiketa egitean hautsik ez harrotzea.

Orokorrean, leku garbienetik zikinenera garbitu behar da, eta goitik behera.

Ahal den guztietan, erabili eta botatzeko materiala erabiliko da.

Enpresa adjudikaziodunak onartu egin beharko du Zentro bakoitzean hondakinen kudeaketarako jarritako sailkapena. Alegia, hondakin bakoitza propio jarritako geletan eta bide publikoko edukiontzietan botako du, eta kolore-kodeak errespetatuko ditu.

Enpresa adjudikaziodunak erabiliko dituen produktuen zerrenda xehatu bat aurkeztuko du, horien fitxa teknikoekin (marka, printzipio aktiboa, kontzentrazioa, kontraindikazioak, etab.) eta segurtasun fitxekin.

Produktu bat aldatzea egokia iruditzen bazaio, aldez aurretik Udal Zerbitzu Teknikoei galdetuko die, eta produktu berriaren fitxa teknikoa aurkeztuko da.

Garbiketa-lanak beti etxeko gomazko eskularruekin egingo dira. Hondakinen garraioa, berriz, materialak manipulatzeko guanteekin egingo da lehentasunez.

Zoruen, zoladuren eta, oro har, elementuen konposizio desberdinak kontuan hartuta, enpresa adjudikaziodunak sistema desberdinak erabiliko ditu kasu bakoitzean, alegia:

6.1.1 Mopaz erraztatzea

Sistema honen bidez zoruan dauden partikulak kentzen dira, airea harrotu gabe. Mopa bustiaz erraztatuta, aurrez tratatutako zoruaren distira nabarmentzen da, mopan bertan zoru bakoitzarentzat egokia den produktua aplikatuta.

Hori eginda, enpresa adjudikaziodunak hautsa birziklatzea lortu behar du, eta, hala, ia erabat kenduko du germenak transmititzeko bide nagusietako bat.

6.1.2 Zoru gogorrak eta porotsuak

Arreta berezia behar du zoru gogor eta porotsuen garbiketak (marmola eta terrazoa, esaterako). Horregatik, lehenik eta behin, lurra prestatu beharko du adjudikaziodunak: azalera tratatu beharko du, lurra babesteko eta eguneko garbitasuna finkatzeko.

Zorua prestatzeko, lehenik eta behin, sakoneko dekapatzea egin behar da, azidotasunik gabeko detergente alkalinoak erabilita, zoruaren konposizioa ez kaltetzeko. Detergentea mekanikoki aplikatuko da, makina birakariak erabilita.

Ondoren, bigarren fasean, zoruaren poroak itxi beharko ditu, uretan disolbatutako zigilatzaile neutroak erabilita. Hala, zoru iragazgaitza eta homogeneoa lortuko da, zikinari sartzen uzten ez diona, garbitzen errazagoa izan dadin. Garbitasuna nabarmentzeko, distira-tratamendua egingo dio azkenik, mekanikoki baita ere. Zoru bakoitzerako distira-emaile eta kristalizatzaile egokiak erabiliko ditu, konposizioaren gogortasunaren arabera. Produktu horiek guztiek irristen kontrakoak izan beharko dute. Programazio-taulan adierazitako maiztasunarekin egin beharko da prozesu hori guztia.

Horren ondoren, zoruak garbi mantentzeko “erratz bustia” pasatuko da: mopa eta detergente neutroz garbituko da lurra mantxak kentzeko, beharrezkoa den bakoitzean. Hautsa erabat kentzea lortuko da hala.

6.1.3 Zoru ez-porotsuak

Zoru ez-porotsuak (granitoa eta gres zeramikoa, adibidez) xurgagailuz eta erratzaz garbituko dira; hautsa airean ez zabaltzeko konposatu berezia erabiliko da. Gero, mopaz eta detergente neutro batez garbituko da, edo mekanikoki, garbitzailea eta nylonezko zepiloa erabilita: zona bakoitzean jendearen joan-etorriei, higadurari eta zikinkeriari erreparatuko zaio, prozesua zenbatean behin egin erabakitzeko (erantsi den programazio- eta maiztasun-taula orientagarri izango da).

6.1.4 Argizariz tratatutako egurrezko lurrak

Eguneroko garbiketan erratz bustia pasatuko da, gasan hautsa biltzeko produktua botata. Ez da urik erabiliko.

Garbiketa sakona egiteko base disolbatzaileko argizaria erabiliko da, lurra hobeto kontserbatzeko.

6.1.5 Goma, sintasol edo antzeko lur lau edo homogeneoak

Oinarrizko tratamendua emango zaio: garbiketa mekaniko sakona eta ur-basedun zigilatzailea (geruza gogor bat sortzeko, aulkien gurpiletako edo oinetakoen zolatako goma beltzak edukitzen duen anilinak uzten dituen marka beltzen kontrakoa).

Marka beltzak eta marra sakonak saihesteaz gain, zoladura horien bizia luzatuko du geruza babesgarri horrek, zikinkeria errazago kentzen denez, garbiketa egiteko ez delako prozedura hain agresiborik behar.

Lurraren estetika nabarmentzeko eta jatorrizko itxura kontserbatzeko, ur-baseko emultsio autodistiratzailea eman beharko du langileak zigilatzailearen gainean. Eta horrek berak ere zikinkeria errazago kentzen lagunduko du.

Hori mantentzeko, erratz bustia pasatuko da azalera guztian, eta makinaz distira emango zaio lehorrean, baldin lokalaren egoera kontuan hartuta hori egin badaiteke edota egokia bada.

Lehen aipatutako oinarrizko tratamendua behar adina bider errepikatuko da. Emultsio babesgarria "spray" sistemaren bidez egingo da, hau da, operazio bakarrean lurra garbitu, argizariz tratatu eta distira emango zaio, distira emateko makinaz eta produktu berezi batez (argizariz eta agente detergentez osatutakoa). Metodo hori da lur lauak mantentzeko metodo arrazional, eraginkor eta merkeena.

Baldin eta aplikatutako emultsioa metalizatua eta garbigarria bada, "spray" metodoaren ordez garbiketa arina egingo da mopaz eta detergente neutroa erabiliz, beharrezkoa izanez gero. Horrelako zoruetan inola ere ez dira erabiliko disolbatzaile puruak edo produktu generikoak; izan ere, horiek bereziki kaltegarriak dira, eta gerta daiteke zoruaren kolorea ere aldatzea.

Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak erabakiko du zein mantentze-metodo erabili, enpresa adjudikaziodunaren eskaera aztertu ondoren.

6.1.6 Ehunezko lurrak: moketak eta alfonbrak

Alfonbrak eta moketatutako zoruak sartzen dira horien barruan. Xurgagailua sakon erabiliz eta adierazitako maiztasunarekin kenduko da alfonbra eta moketetako hautsa. Ehunezko lurrei kontu berezia egin behar zaie, hauts-pilaketa kritikoa izaten da-eta horietan. Alfonbretako ehunen artean sartutako hautsak bizar-xaflarena egiten du zapaltzen denean, eta ilea hondo-hondotik ebaki edo gastatzen du.

Xurgagailua pasatu ondoren, moketa eta alfonbretako mantxak agerian geratuko dira, eta horiek kendu beharko dira orduan. Xanpu neutro espezifikoak erabilita, zikinkeria ehunean sartzea eragotziko da.

Joan-etorriak, zikinkeria eta higadura kontuan hartuta prestatu den programari jarraituta, garbiketa sakon eta osoa egingo da xanpu egokia edo konposatua erabiliz. Horretarako, injekzio-erauzketa egiten duen makina erabiliko da: lehenik xanpu alkalinoa ehunean sartuko du, eta, aldi berean, erauzketaz produktua kenduko du, hartara berehala lehortuko da ehuna. Hala, garbitu ez ezik, koloreak ere bizituko ditu, eta ehunezko lurrek jatorrizko itxura izango dute berriz.

Mantxak sarri-sarri kenduko dira, eta mantxa berri bat agertzen den bakoitzean. Mantxa agertzen denetik denbora gehiegi ez pasatzen saiatu beharko du adjudikaziodunak, ez dadin ehunean sartu, orduan zailagoa baita kentzen.

Erabiliko diren produktuek ehunaren konposizioa errespetatu beharko dute (bai forma eta bai kolorea).

6.2 BAINUGELAK, SANITARIOAK ETA KOMUNAK

6.2.1 Bainugelak eta aldagelak

Garbiketa sakona egingo da, III. eranskinean adierazten den adina aldiz, higienearen aldetik beti garbi-garbi egon daitezen.

Kontu berezia jarri behar da komunak eta aldagelak garbitzen, germen patogeno asko pilatzen baitituzte.

Komunaren garbiketan honako lan hauek egin behar dira:

a) Zakarrontziak hustu.
b) Azalera guztietan detergente desinfektatzailea bota zipriztingailuaz, eta minutu batzuetan horrelaxe utzi, efektua egin dezan.
c) Komun-ontzia, konketak, bainu-ontziak, dutxak, baldosak eta ispiluak garbitu.
d) Aldageletako lurra eta azulejoak presiozko ur makinarekin garbitu (horiek eraikinean bertan daude).

6.2.2 Komun-ontziak

Kontu handiz garbitu eta desinfektatu behar dira, bai barrutik eta bai kanpotik, beti gomazko eskularruak jantzita (baina ez bainugelako beste elementu batzuk garbitzeko erabiltzen direnak).

Komun-ontziak garbitzeko, espartzu espezifikoak erabiliko dira (marratzen ez dutenak), esmaltea eta altzairu herdoilgaitza ez urratzeko. Komun-ontziak garbitzeko erabiltzen diren espartzuak eta baietak ezingo dira beste ezer garbitzeko erabili.

Komun-ontzietarako garbigailu bereziak erabiliko dira, zikinkeria organikoa disolbatu eta kare eta herdoila kentzen dutenak eta bat-bateko desinfekzio iraunkorra ematen dutenak.

Ingurumena beti ahalik eta deskontaminatuena egoteko eta desinfektatzaile jakin bat sarri erabili dela-eta zikinkeria ez dadin ohitu edo erresistente bihurtu, bi desinfektatzaile germizida edo gehiago txandakatuko dira sistematikoki, aldiro-aldiro (baina sei hilabete baino gehiagoko tartea inoiz utzi gabe).

Horrez gain, bide publikoan instalatutako komunak garbitzeko jarritako maiztasuna kontuan hartuta, adjudikaziodunak kendu edo garbitu beharko ditu komunaren kanpoan nahiz barruan detektatzen dituen kartelak edo pintadak.

6.2.3 Konketak, bainu-ontziak eta dutxak

Desinfektatzaile germizida jakin batzuk eta marratzen ez duten espartzuak erabiliko dira (esmaltea ez kentzeko).

Arreta berezia jarriko da ur-irteerako sareta kromatuen, hustubideen, kanilen, tapen eta kateen desinfektazioan, askotan erabiltzen direnez germen-foku garrantzitsuak izan daitezke-eta.

6.2.4 Plaketak

Plaketazko paretak zein konketa, bainu-ontzi, dutxa, komun-ontzi eta abarren pareko azulejoak eraikin bakoitzean jarritako maiztasunez garbituko dira.

6.2.5 Ispiluak

Gamuza naturalaz desinfektatu eta lehortuko dira, adierazitako maiztasunarekin.

6.2.6 Azalera horizontaletan erratz bustia pasatzea eta mopaz garbitzea, bi kubo erabilita:

Komunetako lurrak kasu bakoitzean finkatutako maiztasunez desinfektatuko dira, baina arreta gehiagoz garbituko dira gehien erabiltzen diren lekuak, alegia, komun-ontziak, bainu-ontziak, dutxak eta sarrerako ateak.

Lurreko eskuadrei ere arretaz erreparatu behar zaie, germen-fokuak direlako. Espartzuz eta produktu desinfektatzaile eta germizidaz garbituko dira, adierazitako maiztasunarekin.

Bakterio, onddo eta birus guztiak kentzeko, klorodun desinfektatzaileak erabiliko dira, eta azalerak kaltetu gabe zurituko dira.

Bioalkoholaz indartutako multigarbitzailea.

Bi desinfektatzaile germizida edo gehiago txandakatuko dira, egoki denean aldatuz (bakoitzarekin 6 hilabete baino gehiago inoiz egin gabe).

Altzariak garbitzeko erabilitako baieta ez da erabiliko komuna garbitzeko; kolore-kode batez bereiziko dira.

6.2.7 Saunak eta igerilekuak

Garbiketa sakona egingo da, erantsitako programan adierazten den maiztasunarekin, higienearen aldetik beti garbi-garbi egon daitezen. Kontu berezia jarri behar da zona horiek garbitzen, germen patogeno asko pilatzen baitituzte.

Garbiketaren barruan honako lanak egin behar dira:
a) Azalera guztietan detergente desinfektatzailea bota zipriztingailuaz, eta minutu batzuetan horrelaxe utzi, efektua egin dezan.
b) Kabinak, saunak, konketak, bainu-ontziak, dutxak, baldosak eta ispiluak garbitu.
c) Bankuak, esku-oheak, iturriak eta barandak garbitu.
d) Aldageletako lurra eta azulejoak presiozko ur makinarekin garbitu (horiek eraikinean bertan daude).

Arreta berezia jarriko da ur-irteerako sareta kromatuen, hustubideen, kanilen, tapen eta kateen desinfektazioan, askotan erabiltzen direnez germen-foku garrantzitsuak izan daitezke-eta.

6.3 ALTZARIAK ETA TRESNAK

Altzariei eta bestelako elementuei hautsa kendu eta garbitzeko, baieta bustiak eta beste bitarteko egoki batzuk erabiliko dira.

Mahaiak, apalak eta abar behar bezala garbitzeko, bertan dauden gauzak aterako dira (liburuak, dokumentuak...), apaleko hautsa kentzeko. Liburu eta abarrei ere kendu beharko zaie hautsa.

Zakarrontziak ere kanpotik eta barrutik garbituko dira, usain txarrik sor ez dadin.

Zakarrontzietako poltsa erabiliak ere kendu egin beharko dira, eta berriak jarri, behar den guztietan.

Hondakin organikoko edukiontzi txikiak ere hustu beharko dira, astean hirutan: erabilitako poltsak kendu edo kuboa garbitu (poltsak erabiltzen ez badira), kanpotik eta barrutik (usain txarrik sor ez dadin), eta poltsa berriak jarri.

Kontu handiarekin garbitu eta desinfektatuko dira, baita ere, ateak, heldulekuak, markoak eta abar, eta hatz-markak kendu beharko dira.

Hautsa ondo kendu beharko da apaindura-elementuetan (koadro, kartel eta abarretan).

Baieta bustia pasatuko da altzari garbigarri, ate, marko, esku-banda eta abarretan, indar hezegarri eta koipegabetzaile handia duen detergente neutroko soluzioan bustita.

Hautsa kaptatzeko produktuz igurtzitako zapi batez garbituko dira bustita garbitu ezin daitezkeen altzariak, azalera ez hondatzeko.

Tapizatutako altzariak garbitzeko, lehenik eta behin xurgatzailea pasatu beharko da, hautsa kentzeko. Horren ondoren, garbitasun sakonagoa egingo da: aurrena apar garbitzailea igurtziko zaio lehorrean eta gero berriro ere xurgatu. Behar denean, prozesu berdina erabilita garbituko dira tapizerietan agertzen diren mantxak ere.

Manparak edota profilak garbitzeko, lehenik eta behin azalerako hautsa kendu beharko da, tratatutako gamuzak erabilita. Segidan, kasuan kasu eman beharreko tratamendua emango da, amoniakodun produktu usaintsuak igurtziz, geletan freskura eta usain ona zabal dadin.

6.4 ELEMENTU INFORMATIKOAK

Produktu garbitzaile neutro espezifikoa erabiliko da pantailaren karkasa, teklatua, inpresora, sagua, kableak eta CPUa garbitzeko.

Pantaila garbitzeko ere produktu espezifikoa erabiliko da.

6.5 KRISTALAK

Eraikin bakoitzerako adierazitako maiztasunak zehatz-mehatz errespetatuta garbitu beharko ditu enpresa adjudikaziodunak kristalak. Beraz, eskaintzak aurkezterakoan, azterketa zehatz bat sartu beharko da. Hor adieraziko dira eraikin bakoitzean zeregin horretarako programatu diren maiztasunak, egunak eta orduak.

Leihoen kanpoko garbiketak esan nahi du kanporantz ematen duten leihoak bi aldetatik garbitu behar direla.

Kristalak garbitzeko, produktu koipegabetzailea erabiliko da, azalerak sakon eta hondakinik utzi gabe garbitzeko, eta horretarako behar diren bitartekoak erabiliko dira: bustitzekoak, eskuareak, karraskatzaileak, xaflak, lehorgailu ezpaindunak, makila teleskopikoak, ukondo artikulatuak, narruzko gamuza eta abar, bai eta detergente neutroa ere (garbiketa berezietan izan ezik, horietan produktu espezifikoak erabili behar dira-eta).

Horrez gain, leiho zein ateetako markoak, barroteak, hegalak, erlaitzak eta beste ere garbitu beharko ditu.

Kristalak garbitu behar dituzten langileek kanpoan nahiz barruan lan egiteko beharrezko segurtasun-neurriak hartu beharko dituzte.

Gaztelekuaren barrualdeko kristalak garbitzea zaila denez —frontoira ematen duen zatian behintzat—, beharrezkoa izango da elementu jasotzaileren bat erabiltzea, beharrezko altueraraino iristeko (frontoiko frontisaren ondoko atetik sartzeko modukoa). Gauza bera gertatzen da Gizarte Zerbitzuetako Departamentua dagoen eraikinean (Zigordia 33), bertako igogailuaren errezel-horma garbitzeko. Aritzbatalde kiroldegiaren kasuan, fatxadako errezel-hormaren azalera garbitu behar da (baita eraikinaren iparraldeko fatxadako letrak ere), eta horretarako bitarteko egokiak erabili beharko dira. Lizardiko kantxan antzeko zerbait gertatzen da. Bestalde, 7 igogailu publikoak garbitzeko ere, elementu jasotzaile baten erabilera aurreikusi beharko da, altuera horietara iristeko. Hortaz, enpresa lizitatzaileek, beren eskaintzak aurkezten dituztenean, kontuan izan beharko dute era horretako makinen edo beste bitarteko lagungarri batzuen alokairua, beste eraikinetako eta instalazioetako lanak ondo eta segurtasunez egiten direla bermatzeko. Horiek guztiak sartuta egongo dira kontratuaren eskaintzan.

6.6 BARRUKO IGOGAILUAK

Arretaz garbitu beharko dira, adierazitako maiztasunarekin, jende gutxien dabilen garaian. Hezetasunaren kontrako prozedurak erabiliko dira.

Produktu garbitzaile ez-urratzailea botako da azalera lehorraren gainean, zipriztingailua erabiliz, eta zapi lehor eta leun batez arin-arin igurtziko da, produktua banatzeko. Hala eginda, geruza babesgarri bat sortuko da, distira uniformea emango diona eta, aldi berean, markak kendu eta korrosioaren kontra babestuko duena.

Kristalezko elementuak garbitzerakoan, tratatutako zona ez markatzeko elementuak erabiliko dira.

6.7 KANPOKO IGOGAILUAK

Hauek ere arretaz garbitu beharko dira, adierazitako maiztasunarekin. Hala, barrutik ez ezik kanpotik garbitzean ere, itsatsita dauden pegatina- eta kartel-arrastoak eta elementu arrotzak kendu egin beharko dira.

Produktu garbitzaile ez-urratzailea botako da azalera lehorraren gainean, zipriztingailua erabiliz, eta zapi lehor eta leun batez arin-arin igurtziko da, produktua banatzeko. Hala eginda, geruza babesgarri bat sortuko da, distira uniformea emango diona eta, aldi berean, markak kendu eta korrosioaren kontra babestuko duena.

Kristalezko elementuak garbitzerakoan, tratatutako zona ez markatzeko elementuak erabiliko dira.

6.8 ARGI-PUNTUAK

Argi-puntuak adierazitako maiztasunarekin garbituko dira. Iristeko moduan dauden zona guztiak garbitu beharko dira. Maiztasun horietatik salbuetsita daude altueran jarritako fokuak (adib. Merkatu plaza, Aritzbatalde Kiroldegia, Gaztelekua…); horiek urtean bitan garbituko dira.

6.9 ERAKUSTEGIAK ETA MARKESINAK

Udalerrian dauden autobus-geltokietako erakustegiak, markesinak eta lineako autobusaren ordutegia adierazteko errotuluak garbitu beharko dira, adierazitako maiztasunarekin (II. eranskinekoak).

Kontratu berriak dirauen bitartean markesina berriak jartzen badira, kontratua izenpetzerakoan adierazitako maiztasunarekin garbitu beharko ditu horiek ere enpresa adjudikaziodunak, eta horrek ez du garestituko kontratuan hitzartutako prezioa.

Produktu garbitzaile ez-urratzailea botako da azalera lehorraren gainean, zipriztingailua erabiliz, eta zapi lehor eta leun batez arin-arin igurtziko da, produktua banatzeko. Hala eginda, geruza babesgarri bat sortuko da, distira uniformea emango diona eta, aldi berean, markak kendu eta korrosioaren kontra babestuko duena.

Erakustegi eta markesinetako kristalak garbitzerakoan, kristalak eta polikarbonatozko plakak ez markatzeko elementuak erabiliko dira.

6.10 EDUKIONTZI, BAKTERIOSTATIKO, AIRE-GOZAGARRI ETA ALFONBRA EZ-LABAINGARRIEN HORNIDURA ETA MANTENIMENDUA

Enpresa adjudikazioduna arduratuko da IV. eranskinean adierazitako elementuak hornitu, jarri eta mantentzeaz.

Gainera, kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratua bera aldatzen bada eraikin/lokal berri batengatik, enpresa adjudikaziodunak behar diren elementuak hornituko ditu, eta atal honetan

adierazitako maiztasunen arabera mantenduko ditu horiek ere. Horrek ez du igoerarik eragingo kontratuan hitzartutako prezioan, elementu horiek sartuta daudelako eskainitako orduko prezioan.

Elementu bakoitzean egin beharreko gutxieneko mantentze-lanak zehazten dira jarraian:

Bakteriostatikoen eta aire-gozagarrien mantenimendua
Enpresa adjudikaziodunak egin beharko ditu ekipoen mantentze-lanak, ondorengo taulan adierazitako gutxieneko maiztasunarekin:

Eragiketa	Gutxieneko maiztasuna	Oharrak
Produktuak berriz kargatu	2 hiletik behin	
Produktuen karga-maila frogatu	Hilean behin	Beharrezkoa bada, berriz kargatu
Aparatuaren garbiketa orokorra	Hilean behin	
Pilek duten karga frogatu	Hilean behin	
Produktuen dosifikazioaren maiztasuna frogatu	Hilean behin	
Produktuen dosifikazio-sistema frogatu	Hilean behin	
Zirkuitu elektronikoak frogatu	Hilean behin	
Dosifikatzaile eta hodien euskailuak frogatu	Hilean behin	
Ur-hodiaren konexioaren estankotasuna frogatu	Hilean behin	

Edukiontzien mantenimendua
Gutxienez hilean behin eta behar den guztietan hustuko dira edukiontziak. Edukiontzi bat kentzen denean, beste bat jarriko da haren ordez (berdina, garbia eta desinfektatuta).

Alfonbren mantentze-lanak
Gutxienez hilean behin garbituko dira alfonbrak. Alfonbra bat kentzen denean, beste bat jarriko da haren ordez (berdina eta garbia).

Edozein zirkunstantzia dela-eta, alfonbraren bat aldatu behar bada (hilekoaz gain), Udalari ez zaio kobratuko (jarritako alfonbra bakoitzeko, gehienez, 2 aldiz, urteko).

7.- GARBIKETA BEREZIAK

Udal teknikariek ekitaldien egun, ordu eta guneen berri emango diote enpresa adjudikaziodunari, gutxienez astebeteko aurrerapenarekin, enpresak eskura izan ditzan garbiketa-zerbitzua egiteko behar dituen baliabideak.

Kontuan izanda hainbat udal eraikinetan ohiko ekitaldiez gain beste ekitaldi batzuk antolatzen direla (hitzaldiak, emanaldiak, jaialdiak, folklore-ekitaldiak eta abar) eta ekitaldi horien ondorioz jende asko pilatu daitekeela eraikinean urteko egun jakin batzuetan, gerta daiteke ekitaldia amaitzean eraikina ez geratzea ohikoa den bezain garbi.

Enpresa adjudikaziodunak gaitasuna eduki beharko du horrelako garbiketak egiteko, dituen baliabideak mobilizatuta.

Era berean, zerbitzu berezien beharra egon daiteke obretan, berrikuntzetan, nahita egindako ekintzetan, hondamendi naturaletan; halakoetan, enpresa adjudikaziodunaren zerbitzuak eskatuko dira eraikinak eta gainerako udal ondasunak erabilera eta egoera onean edukitzeko.

Garbiketa bereziak orduko prezio normalean fakturatuko dira (P1).

8.- GIZA BALIABIDEAK

Administrazio Klausulen Agiriko 21. klausulan ezarritako legez, kontratu honi langileen subrogazioa dagokio, eta gaur egun zerbitzuari atxikita dauden langileei aplikagarri izango zaien hitzarmen kolektiboa

honakoa da: Zarauzko udal-bulegoetako garbiketa-zerbitzuaren enpresa emakidadunen eta horietan zerbitzuak ematen dituzten langileen arteko hitzarmena, 2025eko urriaren 9an sinatua.

Enpresa adjudikaziodunak Baldintza Teknikoen Agiri honetan zehaztutako lan guztiak egiteko langileak izan behar ditu beti (kopuruan eta baldintzetan).

Langileek behar bezala informatuta eta prestatuta egon behar dute, lan-arriskuen prebentzioan.

Zerbitzua emateko behar adina giza baliabide izan behar ditu beti enpresa adjudikaziodunak (zuzenekoak nahiz zeharkakoak), bai kontratuko lanak egingo direla une oro bermatzeko eta bai gertatzen diren gorabeherei aurre egiteko (adibidez, gaixotasun edo istripu bajak, laneko absentismoa, baimenak, sindikatuko lanak eta behar bezala justifikatutako beste arrazoiak). Izan ere, langileen absentziak edo bajak berehala estali beharko dira, enpresaren berezko bitartekoekin.

Orain arte zerbitzua egin duen enpresak emandako datuen arabera, azken urteko lan-absentismoaren datua honako hau da:

- Batezbesteko absentismoaren indizea 2024an = % 17,03

Arduradun bat egongo da antolaketa horren buru gisa. Arduradun horrek kualifikazio nahikoa edukiko du funtzio hori betetzeko, eta behar adinako ahalmena izango du bere zerbitzuak eskatzen dituen erabakiak hartzeko. Pertsona hori lanegunean zehar lokalizatuta egon beharko da, telefono mugikor edo antzeko baten bidez, beharrezkoa izanez gero Obra eta Zerbitzu Saila berarekin harremanetan jar dadin eta behar diren jarraibideak eman diezazkion.

Arduraduna ez da egongo subrogatu daitekeen plantillaren barruan; enpresak bere gastu orokorretan arduradunaren kostuak sartuta izango dituela ulertzen da.

Lanari buruz esan beharreko guztiak enpresa adjudikazioduneko arduradunari jakinaraziko dizkio Udalak, baina aukera izango du enpresaren zuzendaritzari ere jakinarazteko.

Horrez gain, enkargatu bat ere egongo da garbiketako langileen buru gisa. Enkargatu horren dedikazioa lanegun osokoa izango da (II. eranskineko taulan zehaztuta dagoen moduan), eta subrogatu daitekeen plantillaren barruan egongo da. Hori horrela, kontratuan zehar lanpostua betetzen duen pertsonaren aldaketa/ordezkapena proposatzen baldin bada, enkargatu berriak frogatu beharko du urtebeteko esperientzia edo prestakuntza duela I. eranskinean adierazitako eraikinetako elementuen garbiketan eta kontserbazioan, edo esperientzia duela, baita, eraikinen garbiketako edo antzeko lanetako langileen arduradun moduan.

Pertsona hori ere egunero egongo da harremanetan Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuarekin, eta une oro lokalizatuta eta prest egongo da. Bere funtzio nagusien artean daude: zerbitzua kontrolatzea, garbiketako langileak antolatzea eta koordinatzea, eta edozein intzidentzia edo lan gehigarri kudeatzea.

Zerbitzuaren enkargatua aldatu edo ordezkatu behar bada, enpresa adjudikaziodunak idatziz eta behar adinako aurrerapenarekin proposatuko dio Udalari aldaketa hori. Hori ikusi ondoren, Udalak frogatuko du ea pertsona horrek betetzen dituen enkargatuaren zereginak betetzeko baldintzak.

Plantillan gertatutako aldaketen berri eman beharko dio adjudikaziodunak Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuari, eta departamentuak aukera izango du teknikari edo langileren bat alda dadila proposatzeko, ez badu egoki ikusten kontrata honetako zerbitzua emateko.

Zerbitzuko langile guztiek bere lanerako arropa egokia jantzita egon beharko dute beti.

Arropa horren kantitatea nahiz kalitatea hitzarmen kolektiboan erabakitakoaren araberakoa izango da beti; alegia, gutxienez bi uniforme izango dituzte urteko, bat udakoa eta bestea negukoa. Uniforme horiek babes egokia eman beharko dute, bai eguraldiaren gorabeheren kontra, bai eta istripuen kontra ere.

Lizitatzaile bakoitzak arropen zerrenda zehatza aurkeztu beharko du, bai eta langile bakoitzak erabiliko duen material osagarriena ere; Udaleko Zerbitzu Teknikoek onartu egin beharko dituzte arropa horiek.

Enpresa adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da langileak zikin, gizalege gabe edo uniformerik gabe badabiltza, bai eta auzokoekin, eta, orokorrean, erabiltzaileekin begirunerik gabe badabiltza.

Enpresa adjudikaziodunak behar bezala aseguratuta eduki behar ditu bere kargura dituen langile guztiak. Gainera, erantzukizun zibileko aseguruak ere kontratatu beharko ditu, lanak egitean besteei eragindako kalteak estaltzeko.

Greba edo enpresa-gatazketan, organismo eskudunek jarritako gutxieneko zerbitzuak onartu eta bete beharko ditu enpresak.

Enpresa adjudikaziodunak ezingo du inola ere langile gutxiegi dituen aitzakia jarri plegu honetako lanak atzeratu edo ez betetzeko; lana betetzeko adina langile izan behar baititu beti, hileko kuota finkoari eragin gabe.

Udalak enpresa adjudikaziodunari eskatu ahalko dio alda dezala kontratatutako zerbitzuko langileren bat, baldin eta ikusten bada lanean interes gutxi duela edo lana ez duela ondo betetzen, erabiltzaileekin tratu txarra duela edo, Udalaren ustez, kontratatutako zerbitzuaren kalitatearen kalterako den beste edozein zirkunstantzia gertatzen bada. Enpresa adjudikaziodunak 15 eguneko epea izango du langilea ordezkatzeko.

Enpresa adjudikazioduneko langileek ez dute inongo kasutan lotura edo harreman laboral, kontratuzko, funtzional edo bestelakorik izango Zarauzko Udalarekin, eta enpresak hala adierazi beharko die langileei, kontratuetan espresuki hori jasota.

Udalak enpresa adjudikaziodunari eskatu ahalko dio langileren bat zerbitzutik kentzeko edo dagokion zigorra jartzeko, baldin langileek horretarako motiboak eman badituzte.

Enpresa adjudikazioduneko arduraduna izango da lanen erantzule, erabakiak hartzeko ahalmena izango du, eta hark konponduko ditu lanean sortzen diren arazo guztiak.

Zerbitzuko langileek normalean lantoki batean edo batzuetan egingo dute lana; toki horiek beti berdinak izango dira. Horrek ez du esan nahi, ordea, langileak lantoki horretan edo horietan adskribatuta daudela. Zentroko egutegiak bat egiten ez badu zentro horretan lan egiten duen langilearen egutegiarekin, enpresa arduratuko da lanorduen aldea berdintzen, kontratuan sartutako gainerako lan-zentroetan. Alegia, zentroko garbiketa-orduak gutxiago badira langileak kontratuan dituenak baino, enpresa arduratuko da orduen aldea osatzeaz, kontratuko beste lan-zentro batean. Hartara, enpresa adjudikaziodunak aukera edukiko du zerbitzuko langileak kontratu honen xede den edozein lokaletan edo eraikinetan enplegatzeko, baina beti udal zerbitzu teknikoen oniritziarekin.

Kontratatzen diren langile berriak ere ez dira lantoki jakin batean adskribatuko.

9.- BITARTEKO MATERIALAK

Zerbitzuan zein material adskribatzea erabaki duten adierazi beharko dute lizitatzaileek. Lizitatzaileek eskainitako material, ibilgailu eta makineria guztiak behar bezala erabilita eta ondo kontserbatuta egon beharko du; hala ez bada, udal teknikariek atzera botatzeko aukera izango dute, eta enpresa adjudikaziodunak ordezko berriak eta egokiak jarri beharko ditu.

Lan bakoitzerako zer material erabiliko duten adierazi beharko dute lizitatzaileek euren eskaintzetan. Zerbitzua egiteko jarritako bitarteko materialek une oro bermatuko dute zerbitzua bera beteko dela eta hori nahikoa izango dela laneko plana eta mantentze plana garaiz burutzeko eta sortzen diren ustekabeei konponbidea emateko.

Gutxienez aurrez adierazitako materiala eduki behar du enpresa adjudikaziodunak kontratuaren xede diren lanak egiteko. Hortaz, kontratuaren alderdi guztietan zerbitzuak behar bezala betetzeko beharrezkoa bada, material hori ugaritu edo osatu beharko du, baina esleipenaren prezioa garestitu gabe.

Udalak ulertuko du adjudikaziodun ateratzen denak lizitazioaren eskaintzan proposatutako bitarteko materialak nahikoak direla zerbitzua betetzeko. Hala ez bada, enpresa adjudikaziodunak bere gain eta kontura jarri beharko ditu zerbitzua ondo emateko behar direnak. Eta gainera behartuta egongo da bitarteko horiek ordezkatzera eta kontserbazio eta garbitasun egoera ezin hobean edukitzera.

Udalak bitarteko hauek dauzka jabetzan: lurra garbitzeko hiru makina (2 zoru-garbigailu COMAC INNOVA 55 B —eserlekuarekin—, eta WIRBEL RAPID 40E 55 TOUCH zoru-garbitzaile 1 —eserlekurik gabe—); eta sei pistola (4 kiroldegian eta bi Astiko kirolgunean), aldageletako lurra presioko urarekin garbitzeko. Material hori guztia zerbitzuan adskribatuko da, eta enpresa adjudikazioduna arduratutako da horietaz. Enpresa adjudikaziodunak modu egokian mantenduko ditu, eta bere gain hartuko ditu beharrezko mantentze-lanak eta pieza ordezkatzeko lan guztiak. Kontratuaren amaieran, funtzionamendu eta egoera egokian entregatu beharko ditu bitarteko horiek; denborak eta erabilera egokiak sortutako zaharkitzea bakarrik onartuko da.

Enpresa adjudikaziodunak ordainduko ditu gastu hauek:

- Zehaztutako garbiketa-lanak behar bezala egiteko gastu guztiak.
- Lanak egiteko behar diren bitarteko mekaniko guztiak erosi edo alokatzeko gastuak, baita horiek konpondu eta ordezkatzekoak ere. Hor sartuta daude Gaztelekuko kristalak, Orokieta eskolako pertsianak, kiroldegiko errezel-horma eta beste edozein eraikin edo instalaziotakoak garbitzeko bitarteko lagungarriak ere.
- Orokorrean instalazio finkoak jabetzan edo alokairuan eskuratu eta mantentzearen gastuak.
- Kontratatutako zerbitzuak emateko behar diren langile guztien hartzekoak, aseguruak eta gainerako gastuen ordainketa (araudi ofizialaren arabera), bai eta horien laneko arauzko uniformeena ere.
- Makineria (zoru garbigailua, xurgagailua, etab.) eta ibilgailuak erabiltzetik sortutako gastuak: erregaiak, olioak, ordezko piezak, konponketak eta abar.
- Zerbitzua emateak dakartzan gastu guztiak, baita lanerako behar den dokumentazioa tramitatzeko gastuak ere (BEZa ere bai).
- Garbiketa-produktuak erosteko gastuak: detergenteak, mopak, zoru garbigailuak, xurgagailuak, etab.
- Edukiontziak, bakteriostatikoak, giro-gozagarriak eta alfonbra ez-labaingarriak hornitu, jarri eta mantentzeko gastuak.
- Kalitate-ikuskapenak kanpoko enpresa batekin egiten badira, eraikinetarako hileko ikuskapen horien ondoriozko gastuak.

Enpresa adjudikaziodunak ez du ordainduko garbiketa-lanak egiteko behar den ura. Baina, hori bai, udal teknikariak edo zentroko arduradunak aldez aurretik adierazitako lekutik hartu beharko da ur hori.

Enpresa adjudikaziodunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango ondasunak Administrazioari entregatu baino lehen haietan izandako galera, matxura edo kalteengatik, baldin eta Administrazioa horiek hartzerakoan berandutu ez bada.

Enpresa adjudikaziodunak ordainduko ditu horniduren mantentze, ordezkatze eta berrikuntzak, kontratu honen zehaztasunen arabera eta arloan indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.

Enpresa adjudikaziodunak ordainduko ditu, baita, hornidurak hitzartutako lekuan entregatu eta hara garraiatzeko gastuak.

Udalak enpresa adjudikaziodunari komunikatu orduko emango zaie baja eta alta produktu-unitateei, kontratu honek dirauen bitartean.

Kontratua sinatu eta berehala entregatuko dira aurreikusitako hasierako unitate guztiak, udal instalaziorik ez gelditzeko zerbitzurik gabe.

10.- GARBIKETA PRODUKTUEN HORNIDURA

Enpresa adjudikaziodunak hornituko ditu kontratuaren xede den zerbitzua betetzeko behar diren garbiketa-produktu guztiak. Hori horrela, lan-zentro bakoitzean nola eta zein maiztasunekin hornituko diren produktuak azaldu beharko du.

Eraikin bakoitzean gordeko dira hornitutako produktu horiek guztiak. Enpresa adjudikaziodunak bere eskaintzan ohiko zerbitzua emateko zehaztutako gutxieneko kopurua biltegiratuko da.

Lan-zentroren batean garbiketa-produktuak falta badira, hori arau-hauste larritzat hartuko da, eta, behin eta berriz errepikatzen bada, horri buruzko neurriak hartuko ote diren aztertuko da, eta enpresa adjudikazioduna zigortu egingo da.

11.- HONDAKINEN KUDEAKETA

Enpresa adjudikaziodunak kudeatuko ditu kontratua bete bitartean sortzen diren hondakinak, eta egoki kudeatzen direla bermatuko du.

Kontratuaren xede diren instalazioetan sortutako hondakinei dagokienez, enpresa adjudikaziodunak gaur egun dagoen edo kontratua bete bitartean jartzen den gaikako bilketa-sistema jarraituko du, eta sailkatu ondoren bide publikoan jarrita dauden edukiontzietatik dagokionean botako du.

Enpresa adjudikaziodunak sailkatu egingo ditu zerbitzua betetzean sortutako hondakinak (papera, trapuak, produktuen ontziak…), eta herriko edukiontzietan botako ditu, asimilagarriak badira, edo baimendutako kudeatzaile baten bidez kudeatuko ditu, hondakin arriskutsuak badira.

12.- PRESTAKUNTZA

Langileek euren lanari buruzko prestakuntza jaso behar dute, alegia, lan horiek nola egin behar dituzten euren osasunerako eta ingurumenerako era arduratsuan.

Enpresa adjudikaziodunak prestakuntza plan bat aurkeztu beharko du, kontratua sinatzen denetik lehen hilabetean, langileen behar espezifikoak kontuan hartuta.

13.- TXOSTENAK

Hilero, eraikin bakoitzari dagokion faktura aurkeztu aurretik, enpresa adjudikaziodunak txosten bat aurkeztuko dio Zerbitzuetako udal zerbitzuari, gai hauen berri emateko: eraikin bakoitzean egindako lanak (egindako ordu-kopurua), eta egindako fitxaketen laburpen-taula. Informazioa paperean eta euskarri digitalean aurkeztuko da (xml, xls edo Udalak definitutakoa).

Era berean, enpresa adjudikaziodunak urtero-urtero txosten bat bidaliko dio Udalari, informazio honekin: egindako garbiketa orokorrak, intzidentziak, gorabeherak (baja portzentaiak, istripuak, oporrak, gaixotasunak, etab.), erabilitako produktuen zerrenda, emandako prestakuntza…

14.- ZERBITZUAREN KALITATEAREN UDAL KONTROLA

Udalak egoki iruditzen zaizkion kontrolak eta ikuskapenak egingo ditu, kontratua pleguen eta eskaintzaren arabera betetzen ari dela bermatzeko.

Garbiketa zerbitzua ondo ematen dela bermatzeko egin beharreko eragiketa guztiak egingo ditu enpresa adjudikaziodunak, plegu hauetan jasotako edukiaren arabera, eta sortzen diren gorabeherak kanalizatu eta konponduta.

Eraikin eta lokalen garbiketari buruzko plan bat aurkeztu beharko du enpresa adjudikaziodunak. Kudeaketako eta administrazioko lanak eta normalean eraikinean lan egiten duten langileen kualifikazioa eta iraunkortasuna azaldu beharko dira plan horretan. Gainera, zerbitzua garatzeko software eragile bat aurkeztuko du, enpresa adjudikaziodunaren eta administrazioaren arteko komunikazioaren oinarri izan dadin: zerbitzuaren garapena, gertakarien tratamendua, kalitatearen eragilea.

Zarauzko Udalak kontratuaren arduradun bat izendatuko du, garbiketa zerbitzuaren jarraipena eta kontrola egin dezan, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legean figura horrentzat aurreikusita dauden funtzioak bete ditzan, lege horren 62 artikuluarekin bat etorriz.

Enpresa adjudikaziodunak enkargatu bat izendatuko du zerbitzua behar bezala emateko, garbiketako langileen lana antolatu eta koordinatzeko, langile horiek egindako lanak gainbegiratzeko, sortzen diren gertakariei aurre egiteko, eta kontratuaren arduradun-lanak egingo dituen pertsonarekin etengabe eta behar den guztietan harremanetan egoteko.

Horrez gain, Administrazioak edozein momentutan egoki iruditzen zaion laguntza teknikoa eskatu ahalko du, egiaztatzeko enpresa adjudikaziodunak betebeharrak behar bezala betetzen dituela eta lana kalitatez eta behar bezala egiten ari dela.

Lokal eta eraikinetako erabiltzaileek eskatutako prestazioak mantentzeko, beharrezkoa da adjudikaziodunaren eta administrazioaren artean harreman estua eta etengabea edukitzea; eta maila teknikoari dagokionez, berriz, eraikinaren eta bere instalazioen ikuskapena egitea aldiro-aldiro.

Egindako ikuskapenaren arabera, Zarauzko Udalak agindu zehatzak eman ahalko dizkio enpresa adjudikaziodunari, eta horrek derrigorrez bete beharko ditu.

Udalak ziurtatu ahal izateko enpresa adjudikaziodunak egiten eta betetzen dituela plegu hauetan adierazitako lanetan eraikin bakoitzerako hitzartutako zerbitzu-ordu guztiak, lizitatzaileak kontratu bat sinatuko du enpresa espezializatu batekin, garbiketako langileen asistentziaren kontrola egiteko. Kontrol hori telefono-deien bidez edota beste sistemaren baten bidez egin daiteke, baina beharrezkoa da lanera sartzeko eta ateratzeko orduak kontrolatzea. Aipatutako asistentziaren kontrola telefono-deien bidez egitekotan, Udalak enpresa telefono-zenbaki batzuk emango dizkio (eraikinetako garbitzaileek zenbaki horietatik deiak egin ahal izateko, beti ere dei horiek ez diote inolako kosturik eragingo Udalari); eta udal eraikin/lokalak ez badauka telefono-zenbaki finkorik, adjudikaziodunak beste irtenbide bat eman beharko zaio asistentzia-kontrolari (adibidez telefono mugikor batetik kontrolerako deia egin ahal izatea).

Aurreko hileko asistentziari buruzko datuak excel-orri batean bidaliko dira hilabete hasieran Udalera, edo telefono-deiak jasotzen dituen enpresatik zuzenean, edo enpresa adjudikaziodunak berak, asistentziaren kontrola egiten den moduaren arabera (telefono bidez edo ez).

Eguneko lanaren dedikazioan denbora luzatu egiten bada, horrek ez du ekonomikoki saririk izango, salbuespenezko kasuetan izan ezik, hau da, udal zerbitzu teknikoek hala eskatu badute aldez aurretik.

Kontratuaren xedea betetzen dela egiaztatzeko, zerbitzuaren KALITATEAREN KONTROL SISTEMA bat jarri da. Udalak berak edo kanpoko erakunde batek egin dezake kontrol hori. Ikuskapen horiek kanpoko enpresa batek egiten baditu, kostua enpresa esleipendunari egotziko zaio.

Honako puntu hauetan oinarrituko da kontrol hori:

- Behaketa puntualak.
- Kalitate mailen kalifikazioa.

Egokitzat jotzen den maiztasunarekin, udal teknikariak eta zentroaren arduradunak jarritako egun eta orduan, eta enpresa adjudikazioduneko solaskide/arduradunari abisatu ondoren, behaketa-ibilbide bat

egingo da kudeatzailearekin batera. Hitzartutako metodo aleatorio baten bidez zehaztuko da zein toki ikuskatuko den.

Ibilbide horietan eta zona edo gune zehatz bakoitzerako Kalitate Txostenaren barruan datu hauek idatziko ditu udal teknikariak edo kanpoko kontrol enpresa batek, zentroko arduradunaren aholkularitzarekin batera:

a) Garbiketa maila.
b) Antzemandako akatsak eta, halakorik badagokio, langile arduraduna zein den.
c) Zonako/guneetako arduradunek eskatzen dituzten zuzenketa-neurriak.

Behaketa horiek guztiak kontuan izanda erabakiko da Garbiketaren Kalitate Maila zein den, ondorengo eskala honen arabera:

OSO ONA:
Gunea, zona edo tokia oso egoera onean dago, mantxarik, usainik, hautsik edo zikinkeriaren beste arrastorik gabe: lurzorua, kristalak etab.

ONA:
Aztertuko den gunea, zona edo tokia egoera onargarrian dago, oro har, baina aurreko mailara iritsi gabe.

ERDIPURDIKOA:
Guneak, zonak edo tokiak ez daude behar bezain garbi; mantxak, usaina, hautsa edo edozein pertsonak antzemateko moduko zikinkeria arrastoak daude.
Neurri zuzentzaile jakin batzuk hartu beharko dira.

TXARRA:
Aztertzen diren zonek itxura kaskarra daukate, oro har, behar besteko garbiketarik egin ez den seinale eta arrasto garbiak ikusten dira.
Kasu honetan neurri zuzentzaile orokorrak hartuko dira.

OSO TXARRA:
Azalera osoan, txukuntasun eza eta zikinkeria antzematen dira, nonahi; kasu honetan, zerbitzuan goitik beherako aldaketa bat egin behar da bai langileena bai garbiketako prozedurena.

Ikuskapenaren balorazioa erdipurdikoa edo hortik beherakoa bada, gehienez ere 15 eguneko epean beste ikuskapen bat egingo da eraikinean. Bigarren ikuskapenaren balorazioa berriz ere txarra bada, isuna jarri eta beste ikuskapen bat egingo da.

15.- INGURUMEN IRIZPIDEAK

1.- Garbiketa-produktuen baldintza teknikoak:

- Honako produktu hauek ezingo dira garbiketan erabili (kasu berezietan izan ezik eta udaleko teknikarien oniritziarekin):
  - Aire-freskagarriak
  - Gernu-ontzietarako lurrindutako pilulak edo substantziak
  - Gasak dituzten espraidun produktuak (produktuak lurruntzeko ontzi berrerabilgarriak bakarrik onartuko dira)

- Normalean erabiltzen diren garbiketa-produktuek (hau da, erabilera anitzeko garbitzaileak, hozkailuak eta gainazal zeramikoen garbitzaileak) osagaiei buruzko baldintza batzuk bete beharko dituzte. Produktuaren formulazioan dauden osagai kimikoetarako I. motako ekoetiketa baten baldintzak beteko dituzte (ISO 14024 arauaren arabera zehaztuta). Betekizun hori egiaztatzeko, ziurtagiri edo logotipoa bera erabili ahal izango da (Europako iparraldeko beltxarga edo Europako

etiketa ekologikoa, adibidez), edo, bestela, enpresa adjudikaziodunak justifikazio tekniko bat aurkeztu beharko du, ekoetiketa horien baliokideak diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

2.- Zerbitzua gauzatzeko baldintzak:

Garbiketa-produktuak:

- Enpresa adjudikaziodunak erabiltzen dituen produktu guztiak zerrendatu beharko ditu, eta zerrendari produktu bakoitzaren fitxa teknikoa eta segurtasun-datuen fitxa erantsi beharko dizkio.
- Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren hasieran aurkeztutako produktuen zerrenda aldatu eta beste produkturen bat erabili nahi badu, Udalari jakinaraziko dio aldez aurretik, azter dezan. Ezinbestekoa izango da Udalaren oniritzia produktu berria erabili ahal izateko.
- Garbiketa-produktuen ontziek behar bezala etiketatuta egon beharko dute. Bertan, gutxienez, izen komertziala, arrisku-piktogramak, erabilera-jarraibideak eta, bereziki, dosifikazioa agertu beharko dira.
- Garbiketa-produktuen ontziek beharrezko dosifikatzaileak izan beharko dituzte, behar den kantitatea erabiltzeko eta produktua alferrik ez galtzeko.

Hondakinen kudeaketa:

- Kontratuaren xede diren instalazioetan sortutako hondakinei dagokienez, adjudikaziodunak egun martxan dagoen hondakinen gaikako bilketa mantendu beharko du, edo kontratuaren epearen barruan txerta daitekeen sistemara egokitu. Hondakinak dagokion kaleko edukiontzietara bota beharko ditu.
- Enpresak berak ematen duen zerbitzuan sortutako hondakinak (papera, trapuak, produktu-ontziak) bereizi eta kaleko edukiontzietan utzi beharko ditu, hiri-hondakinak badira, edo kudeatzaile baimendu batek kudeatu beharko ditu, izaera berezia badute.

Zarautzen, 2025ko azaroa

I ERANSKINA. ZENTROEN ZERRENDA

II ERANSKINA. ERAIKIN BAKOITZEKO ZERBITZU-ORDUEN TAULA

III ERANSKINA. ERAIKIN BAKOITZEKO GARBIKETA-MAIZTASUNAREN FITXAK

IV ERANSKINA. ERAIKIN BAKOITZEKO EDUKIONTZI, BAKTERIOSTATIKO, AIRE-GOZAGARRI ETA ALFONBRA EZ-LABAINKORREN ZERRENDA